

'Kostaldeko agurea' irabazle

Judith Mariezkurrena da ipuinaren egilea ▶ 7



Tolargi eta Tolosa Gasaren zerbitzuaz «iritzi ona» du herritar gehienak

ERANTZUNAK ▶ 1.300 iradokizun jaso dituzte; zozketako irabazleak ezagutzera eman dituzte ▶ 2




Tolargiko, Tolosa Gasako eta Udaleko ordezkariak bezeroen arteko zozketa egiten. IMANOL GARCIA



IÑIGO TERRADILLOS

Errepidea berritzeko lanak aurrera doaz herrian

LEABURU ▶ Beste proiektu batzuk ere martxan dira: frontoia berritu, suteei aurre egiteko mangerak, zaborrontziak jarri... ▶ 6



'SAN INAZIO' MEDIKU ZENTROA

R.P.S 401/04

KONTSULTAK

- Familiako medikuntza
- Oftamologia
- Erreabilitazioa
- Pediatria
- Arma eta gida baimenak

San Inazio, 2 (Muñazabal altzarien ondoan) • TOLOSA
EGUNERO - Tel.: 943 65 41 24





ARISTEGI EZEIZA. S.L.

BAINUGELA - SUKALDEA - AZULEJOAK

AZULEJOAK - SANITARIOAK - KAMILAK - HIDROMASAJEA
SUKALDEKO ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK - MAMPARAK
SALINAK - HORMA-ARMARREAK - BAINUGELAKO
OSAGARRIAK - TERRAZOIA - ARTSALITZAKO PRODUKTUAK
- MARMOL ZAHARTUAK - GRES-ZOLAKURIA - GRES
PORZELANERDIA - GRESITER

Zubieta k., 13 DONOSTIA ☎ 943 45 60 01

Prezioak aztertzeko erabiltzeko bitarteko, 9:30etatik 11:00etara eta 15:30etatik 19:30era. Larazabetik 10:30etatik 11:00etara.

ERLIJIOA ▶

**Hitzaldia etzi
Santa Maria
parrokietxean**

Santa Maria parrokietzeko aretoan hitzaldia eskainiko dute hilaren 29an, etzi, 19:00-etatik aurrera. EiTBko kazetari Florencio Torrelledok eskainiko du solasaldia gaztelaniaz, eta honakoa izango da izenburua: *Hablar del Evangelio parece que no esta de moda*. Santa Mariako ardura-dunek herritar guztiei egin diete deialdia hitzordu horretara ager daitezten.

GIZARTEA ▶

**Tabernariak «oso kezkatuta» daude
Elurra kasuagatik**

Herriko tabernari batzuk «oso kezkatuta» agertu dira Elurra tabernako jabeak, pe-gatinen argazki bat izateagatik «terrorismoaren apologia» leporatuta, Madrilerak deklaratzera deitu dituztelako. «Horrelako kasurik ez da inoiz gertatu», Gipuzkoako Ostalaritza Elkartetik azaldu dietenez. Zitazioa biharko atzeratu dute funtzionarioen greba batengatik.



Hainbat tabernari, Elurrako jabeak elkartzara erakusten. J. SAIZAR

OMENALDIA ▶

**Linazasorori
omen eginez,
erakusketa**

Atzo urtebete bete zen Iñaki Linazasoro hil zela, eta hori dela-eta omenaldia egin nahi izan dio Tolosako Udalak «Tolosaren alde lan eskerga egin zuen gizonari». Horretarako, bere argazkien erakusketa antolatu du, hainbat urtetako lanaren oroigarri. Antonio Maria Labaien kultur etxean izango da ikusgai erakusketa, maiatzaren 6a bitartean.

EKONOMIA ▶

1.300 izan dira jasotako iradokizunak

Tolargi eta Tolosa Gasaren zerbitzuaz iritzi «ona» du tolosarren gehiengoak

I. GARCIA - I. ETXEBESTE

Tolosa Gasak eta Tolargik eskaintzen duten zerbitzua ona (%73,09) edo oso ona (%21,26) dela irizten diote tolosarrek. Hala adierazten dute, behintzat, herriko gasa eta ura kudeatzen duten bi udal enpresa horien galdeketei erantzunez jaso diren 1.300 iradokizunek. Izan ere, Tolosa Gasaren eta Tolargiren funtzionamendua epaitzeaz gain, herria hobetzeko bidean herritarrek dituzten iradokizunak ere jaso dituzte galdetegi horretan.

Argi eta gas energia udal enpresen bidez —Tolargiren jabetza osoa du Udalak, %100, eta Tolosa Gasaren %60— kudeatzen dituen Euskal Herriko udalerririk bakarra da Tolosa, eta jasotako irabaziak herrian in-

bertitzeko dira. Hori bera oso ondo ikusten dute gehienek (%57,40), eta beste askok ondo (%40,27). Era berean, bi enpresa horiek Udalarenak izateari ondo irizten diote gehienek (%55,91); oso ondo (%36,44) gainerako askok.

Bi enpresa horietako ardura-dunak «oso gustura» dira herritarrek haien zerbitzuaren inguruan egindako hausnarketarekin, eta zerbitzuari buruz «nahikoa» edo «txarra» dela esaten duten gutxi horiei —ez da guztira %6ra iristen— iritzia aldarazteko edo zerbitzua «hobetzen» ahaleginduko direla jakinarazi dute enpresetako arduradunek.

Hain zuzen ere, Tolargiko eta Tolosa Gasako arduradun Jon Otaegik eta Alberto Gonzalezek prentsaurrekoa eman zu-



Tolargiko eta Tolosa Gasako arduradun Jon Otaegi eta Alberto Gonzalez, Tolosako alkateorde Olatz Peonekin zozketa egiten. I. GARCIA

ten hereregun Tolosako alkateorde Olatz Peonekin batean, bi enpresa horiek abian jarritako kanpainaren berri emateko. Herriko etxe guztietara postal bana bidali zuten galdetegi bategin, herrian argia eta gasa inbertitzeko iradokizunak egitea eskatuz. Askotariko erantzunak jaso dituzte: argi publikoa indartzearen alde egin dute askok (%14,91), eta, besteak beste, aparkaleku gehiago jartzea (%14,18); berdeguneak (%10); kaleen garbitasuna (%9,45); haurrentzako parkeak (%7,64); trafikoko hobekuntzak (%7,09)... izan dira tolosarrek eskatu dituztenak.

Iradozikun horiek guztiak dagozkien Udaleko departamentuetara bideratuko dituztela jakinarazi zuen Olatz Peonek, departamentu bakoitzeko arduradunek egoki diren edo ez erabaki ditzaten. Batzuk «oso interesgarritzat» jo zituen Peonek, eta abian jarriko dituztela esan zuen. Adibidez, San Frantzisko pasealekuko farolak aldatu egingo dituzte, bi besotakoak jarritz: besoetako bat pasealekura zuzenduko dute, eta bestea bidegorrira. Monteskue auzoko argiztapen publikoa hobetuko dute halaber, eta herriko argi kutsaduraren gaineko azterketa egin.

KANPAINA ▶

Tolosa Gasak eta Tolargik abian jarritako kanpainaren baitan herria hobetzeari buruz egindako galdeketa erantzun zabala izan du herritarren, enpresen eta komertzioen aldetik. 1.300 iradokizun jaso dituzte, eta horien artean 9 saritu nahi izan dituzte zozketa bidez. Irabazleek 2004ko gas eta argi fakturak doan izango dituzte; hau da, urte osoko gas eta argi kontsumoa itzuli egingo zaie irabazleei dirutan. Honako hauek izan dira, zozketa egin ondoren, atera diren irabazleak:

- ▶ Martin Salsamendi Agirrezabala (San Frantzisko).
- ▶ Tomas Aierza Zagarre (Agintari kalea).
- ▶ ENBA sindikatua (Andia).
- ▶ Claudi Fiz Rodriguez (Pablo Gorosabel).
- ▶ Patxi Gonzalez Villarreal (Korroo kalea).
- ▶ Ana Maria Uranga Goikoetxea (Gernikako Arbola).
- ▶ Izaskun Nuñez (Gernikako Arbola).
- ▶ Kontxi Aizpun Etxezarreta (Amaroz).
- ▶ Juan Martin Zubillaga Sancho (Amaroz).

iragarki laburrak ▶



Abaltzisketa. Sei etxe atxiki, sukaldia, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan, hiru logela, batek bainua du, bainugela eta bi terraza bigarren solairuan, bi autorentzako garajea eta bokoa beheko solairuan.
Anoeta. Duplex ebexbitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldia, terraza eta garajea aukeran.
Belautza. 1.060 m²-ko pabilioia

salgai; oso argitsua eta garabiarekin.
Belautza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Prestatua.
Bidania. Bi familientzat egokituriko sei etxe salgai. Garajea, sukaldia, egongela, bainugela eta terrazarekin lehenengo solairuan. Hiru logela, bainugela eta terrazarekin bigarren solairuan.
Ibarra. Nekazal ustiapenerako egokia den 75 m²-ko pabilioia eta 2.500 m²-ko lursaila salgai.

Ibarra. 85 m²-ko ebexbitza salgai. Kanpoaldera. Bizitzera sartzeko. Garajea aukeran.
Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak salgai, 320, 400, 625 eta 922 m²-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.
Tolosa. Agintari kalean, 75 m² dituen ebexbitza salgai. Eraikuntza berritua. Igogailua eta trastelekuarekin.
Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen ebexbitza berritua salgai.

Atzealdean baratz propioarekin.
Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko ebexbitza salgai, erabat kanpoaldera. Berritzeko.
Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m²-ko ebexbitza salgai. Kanpoaldera, eguzkitua eta igogailuarekin. Berritzeko premia du.
Urretxu. 780 m²-ko pabilioia salgai, 300m²-ko tarteplantarekin. Dena instalatuta. Erakusleku zabala du.

TOLOSA-IBARRA ▶ KIROLA

Asteburu gazi-goza

Futbolean, Tolosak irabazi egin zuen eta lider jarraitzen du; areto futbolean, bestalde, Ibarrek eta Laskorainek galdu egin zuten, eta Hegoalde irabazi

LEIRE MONTES

Asteburu gazi-goza izan da pasatakoa eskualdeko futboleko eta areto futboleko talderik garrantzitsuenentzat. Goren goen mailako Tolosak 3-0 irabazi zion Mondragoni, eta lider jarraitzen du. Areto futbolean, bestalde, Hegoalde 5-4 irabazi zuen UCAM Murtziaren aurka; Ibarrek 3-1 galdu zuen Albedaren kontra, eta Laskorainek 4-0 Altamirarekin.

FUTBOLA

Tolosa 3-Mondragon 0. Goren goen mailako Liga bizi-bizirik da. Tolosa liderrak eta EHU-UPV bigarren sailkatuak irabazi egin dute asteburuan, Mondragonen eta Bergararen aurka, hurrenez hurren. Bost partida besterik ez dira falta Liga amaitzeko, eta bi taldeen artean dago lehia.

Mondragonen kontrako partida uste baino errazagoa izan zen Tolosakoentzat: haiek izan ziren nagusi zelaian, eta Arrasatekoek ez zuten arrisku handirik sortu. Oruek sartu zuten lehendabiziko gola, gol ikusgarria, 21. minutuan. Gorkak jaurtitako baloiak zutoinean jo zuen, 37. minutuan. Arrasatekoek sartu zuten bigarrena urdinetzat, baloia beren atera bidaliz. 77. minutuan sartu zuten Doihartzabalek 3-0eko, buruz.

Lasa eta Blanco baja izan ziren larunbatean. Gorka, berriz, hiru hilabete eta gero, jokatzen hasi da berrir, lesioa erabat osatuta. Apezetxea, Gorka (Irunbe, 77m.), Unai, Jon, Aimar, Pablo, Orue, Prados (Doihartzabal, 75m.), Regillaga (Patxi, 77m.), Romero (Aierbe, 68m.) eta Elola (Ekaitz, 57m.) aritu ziren Berazubini.

Datorren asteburuan Hondarribia tadea izango dute aurkari urdinek. Tolosa CF-k, Udalarekin elkarlanean, autobusa antolatu du Hondarribiara joan nahi duten zale guztientzat. Izen-ematea zabalik da dagoeneko, Shanti Kirolak dendan.



Goren goen mailako Tolosa eta Mutriku taldeen arteko partida, Berazubini, artxiboko irudian. JOXEMI SAIZAR

ARETO FUTBOLA

Hegoalde 5-UCAM Murtzia 4. Emakumezkoen Ohorezko Mailako 24. jardunaldian Kopako txapeliduna izan zuen aurkari Hegoalde: UCAM Murtzia. Aurkari gogorra da Murtziako (Espainia) taldea. Baina Berazubira bildutako zaleek etxeko garaipena ospatzeko aukera izan zuten.

Lehen zatian indartsu ekin zion UCAM Murtziak. Baina Hegoalde kantxan oso ondo kokaturik eta baloiak berreskuratuz eutsi zion. Parekotasun handikoa izan ziren 20 minutuak: 2-2 amaitu zen. Bigarren zatian, baina, partida hausteko asmoa zuela erakutsi zuten Tolosakoek, eta beste hiru gol sartu zituzten. Azken minutuetan murtziakoak gerturatu egin ziren, baina hiru puntuak etxean geratzea lortu zuten Hegoaldekoek. Murtziari historian lehen aldiz irabazi diote.

Sonia Tome, Miriam Arana, Edurne Agirretxe, Amaia Azpilikueta, Nerea Salazar, Esther Videra, Gema Zelaia, Arrate Martinez, Isa Barrio, Naiara Mayo, Maider Lopez eta Itziar

Aldezabal kantxaratu zituen Hegoalde. Maider Lopezek, Miriam Aranak, Nerea Salazarrek (2) eta Edurne Agirretxek sartu zituzten etxeko golak. Datorren asteburuan Rioja Diamante taldearen aurka jokatuko dute.

Albelda 3-Ibarra 1. Ibarra (1. Maila A), ordea, esku hutsi itzuli behar izan zuen Kantabriatik (Espainia), Albelda taldearen aurka galdu eta gero. «Desesperatzeko modukoa». Halaxe laburbildu dute taldeko ordezkariak partida. Haien esanetan, «golak sartzen ez jakitea» da taldearen arazorik nabarmenena.

Larunbatean ere Ibarakoek ez zuten ate aurrean asmatu. Gol aukera ugari sortu zituzten, baina ez zuten lortu baloia sarreratzea. Hautsik kanpora bota zuen zale guztiek jada barruan ikusten zuten baloia. Handik gutxira, Cristian estropozu egin eta lurrera erori zen, pase erabakigarria egitekoa zenean. Gero, Xabi Blanche buruz egindako errematea kanpora joan zen. Eta Dabid Pradosen baselina langara

joan zen. Hutsna amaitu zen lehen zatia.

Bigarren zatia hasi eta bost minutura Albeldakoek sartu zuten golak min handia egin zion Ibarakoek, eta «buruarekin baino, bihotzarekin» jokatzeari ekin zioten orduan. Laster iritsi zen erroixarren bigarrena. Ibarra saiatu egin zen, eta aukerarik ere sortu zuen, baina 3-0eko jaso zuten berehala. Hautsik, azken minutuan, lortu zuen lehena eta bakarra Ibarakoentzat.

Aldapa gora du Liga Ibarrek, baina jokalariek ez dute etsitzedako asmorik. Datorren astean liderra hartuko dute etxean. Jubenil mailako taldeak Espainiako II. Kopa jokatuko du asteburuan Cadizko San Fernando herrian (Espainia). Horregatik, 1. A Mailako taldearen partida atzeratzea eskatu dute. Erredakzio hau ixterakoan Ibarakoek ez zuten oraindik beste taldearen erantzunik jaso; beraz, partida noiz jokatuko duten erabakitzeko dago.

Altamira 4-Laskorain 0. Aurreko hiru jardunaldietan arerio indartsuen aurka zazpi puntu

eskuratu eta gero, Laskorainek denboraldiko porrotik handiena pairatu zuen Bilboko Altamiraren aurka. Dena den, norgehiagoka ez zen gaizki hasi ikastolakoentzat. Lehen minutuetan baloiak «kolore horitxo» izan zuten, eta tolosarrak «eraso posizionalean lauzpabost gol aukera» sortzeko gai izan ziren. Baina etekinik ateratzen ez zuten asmatu; «hortik abiatu zen erremediorik izan-go ez zuten guruzbidea».

Atsedendaldirako sei minutu falta zirenean, kornet batetik iritsi zen bilbotarren lehen gola. «Neurketaren bilakaera erabat baldintzatu zuen. Haien jokoa are eta kontserbadoreagoa bihurtu zen, eta hori gutxi ez balitz, jokoaren mailak gora egin zuen». Horitxoak behera etorri ziren, markagailuan atzetik egoteak ekartzen duen estutasuna ezin menderatu.

Bigarren zatian hasieran gogor borrokatu ziren berdinketaren bila, eta gol aukera batzuetaz gozatu zuten. Baina Altamirakoek sartu zuten bigarrena. Gainera, epaileak Yustos ibartarra kalera bidali zuen. «Partida jada galduta zegoen». Minutu eskasean, eta bi kontrareraso bikainetan, bilbotarrek hirugarrena eta laugarrena sartu zituzten. Laskoraingoek, hala ere, ez zuten bururik markatu, eta hamar metroko jaurtiketa batean eta bi zutoinkadetan (markagailua itxuratzeko nahiko meritu ere) egin zuten. Golik ez zen iritsi, ordea. «Altamirako gorputz aldrebesdun atezain burusoila izan zen partidako onena, futbolaren eta estetikaren arteko harreman ulertezina begi bistan ipiniz, horitxoan etsipenerako».

Domentxek, Yustosek, Amatrianek, Saldiasak, Zubillagak —hasierako bostekoak—, Telletxeak, Alonsok, Barriolak, Gil eta Arregik jokatu zuten. Larunbatean Elgoibarko San Pedrok bisitatuko du Berazubi denboraldiko azken derbian. Altuna —aurreko jardunalditik min hartuta—, Saldias —Argentinan da, lanagatik— eta Yustos —zigortuta— baja izango dira.



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

INGENIARITZAKO GOIERRIKO KANPUSA

ATE IREKIEN JARDUNALDIA

Apirilak 28 Arratsaldeko 17:30ean

Erreserba ezazu tokia telefono zenbaki honetara deituz: 943 88 00 62 (Estitxu 110 extentsioa)



MAIATZEKO IGANDE GUZTIAK IREKITA

Aldez aurreko hitzorduarekin. Orraztu eta makilatzeke

Oria 16 - behea • TOLOSA

Tel.: 943 65 58 37

AMASA ▶ LOATZOKO 13. IGOERA-JAITSIERA

Gizonezkoetan Lamot eta emakumezkoetan Amilibia, garaileak

Garaipena errepikatu du Ramuntxo Lamot sararrak; Nerea Amilibia aiarra Izaskun Zubeldia baino azkarragoa izan zen

IMANOL GARCIA

Loatzoko Igoera-Jaitsieraren 13. edizioa izan zen igandean. Eguraldiak lagundu zuen egunean bertan, baina aurretik egindako euriteak lokaztuta utzi zuen ibilbidea. Gizonezkoetan irabazlea Ramuntxo Lamot izan zen. Horrela, sararrak berriro errepikatu du garaipena, aurreko urtean ere irabazi baitzuen. Bigarrena, irabazlearengandik oso hurbil, 29 segundutara, Jose Javier Cuadrado zaldibiarra izan zen. Eskualdeko lehenengoa eta probako hirugarrena Hassan Ait Chaou billabonatarra izan zen, zaldibiarrengandik 33 segundutara. Ez zen, beraz, Juan Mari Garinek orain bi urte ezarri zuen marka hobetu.

Emakumezkoengan ez zen iazko irabazlea errepikatu. Izan ere, Izaskun Zubeldia billabonatarra bigarren postuan iritsi zen eta bere aurretik Nerea Amilibia aiarra sartu zen. Bien artean bi minutu eta 34 segunduko aldea izan zen. Kontxi Blanco anoetarra iritsi zen hirugarrena helmugara.

Guztira 46 parte-hartzailek eman zuten izena Loatzoko Igoera-Jaitsieran. Horietatik gazteenak 16 urte zituen (Aritz Garin billabonatarra eta zaharrenak, berriz, 60 urte zituen (Patxi Mujika ibartarra). Lehiaketaren amaieran parte-hartzaileen artean hainbat opari zozketatu ziren. Loatzoko 631 metroko altuerara korrika igotzeak ematen duen asebetetzeaz gain, batzuk opari eta guzti itzuli ziren etxera.



Lamot irabazlea, Ait Chaou eta Aritz Garin, proba amaítuta. HITZA

AURRENEKOEN DENBORAK ▶

GIZONEZKOAK

1. Ramuntxo Lamot, 46 minutu eta 24 segundo.
2. Jose Javier Cuadrado, 46 minutu eta 53 segundo.
3. Hassan Ait Chaou, 47 minutu eta 26 segundo.

EMAKUMEZKOAK

1. Nerea Amilibia, 55 minutu eta 14 segundo.
2. Izaskun Zubeldia, 57 minutu eta 48 segundo.
3. Kontxi Blanco, ordu bat, 4 minutu eta 17 segundo.



Kirola eta aisia uztartuz

ASTEASU ▶ Iragan berri den igandean herritik 20 bat lagun abiatu ziren Ulibarri-Ganboa aintzirara. Bertan, haur zein guraso, bakoitza bere bizikletarekin aintziraren inguruan izan ziren. Jarduera fisikoa eta Kirolaren III. Jardunaldien baitan antolatuta zen. Oso giro ona egin zuen eta gustura aritu ziren, lekuren batean nahi baino lokatz gehiago aurkitu bazuten ere. HITZA



Kirola eta aisia uztartuz

ZIZURKIL ▶ Villabonako Fleming eskolako gaztetoenek bisita egin zieten Zizurkilgo Pedro Otaño eskolakoet. Bisita ez ezik, emanaldi bana eskaini zieten elkarri. Flemingoek dantzatu eta kantatu zuten —beheko argazkian— eta Pedro Otañoek *Barraskiloa* antzezlan antzeztu zuten —goiko argazkian—. HITZA

hirukide
 estatubatuar
 jendunak
 erakundeak
 www.hirukide.org
 Tfnoa: 943 670 311

Batxilergoa
 Ibilbide guztiak
 Eleanitza
 Goi mailako Zikloetara bideratutakoa
 Erdi mailako zikloak
 Merkataritza
 Administrazio kudeaketa

ERRENTA 2004

ZURI ESKER GUZTIOK IRABAZTEN DUGU.

Mila esker kirolari emandako bultzadagatik. Mila esker azpiegitura berriengatik. Ezintasunak dituzten pertsoneri laguntzeagatik. Prestakuntzagatik. Teknologia-parkeengatik. Euskara indartzeagatik... Mila esker. Izan ere, guztion ekarpenarekin Gipuzkoak irabazten du.

Errenta eta Ondarearen Aitorpena 2004.

APIRILAREN 25etik EKAINAREN 27ra.

ESKERRIK ASKO



EGIN EZAZU
ERRENTA AITORPENA
EUSKARAZ!

Renta
2004
Errenta

902 100 040

www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

LEABURU ▶ HIRIGINTZA

Bi urteetan eginiko lanen balorazioa egin du alkateak

Leabururako errepidea zabaldu, frontoia berritu, lurpeko zaborrontziak ipiniko dituzte, besteak beste, epe laburrean

IÑIGO TERRADILLOS

Juan Kruz Goñik bi urte darमतza alkate jardunean Leaburu-Txaraman. Bi urte hauetan herrian egin diren berrikuntzen inguruan eta dauden proiektu berriez balorazioa egin du Goñik.

Proiektua aspalditik pentsatuta bazegoen ere, azkenik duela bi aste ekin zieten Leaburura doan errepidea konpontzeko obrei. Errepidea zabaltzeaz gain, espaloia ere jarriko dute alde batean, eta ermita bitarte argikuntza instalazioa egingo dute. «Herritarrentzat hobekuntza handia izango da hau eta pasioan ibiltzen den Tolosaldeko jendearentzat ere», azaldu du Goñik. Bestalde, obrak aprobetxatuz argi eta komunikazio tutuak lur azpitik sartuko dituzte. Ekainean amaitzea espero dute, eta bitartean «errepidea ahal den gutxien erabiltzea» eskatu zaie herritarrei.

Egingo diren beste lanen artean laster hasiko diren frontoien berrikuntza dago. «Dena itxi eta margotuko dugu eta San Pedro jaietarako amaituta egotea nahi dugun», dio alkateak. Halaber, Leaburuko baserriarrei bereziki eta herritar orori zuzenduta, Foru Aldundiarekin harremanetan jarri ondoren, «180 metroko mangerak dituzten bost armairu jarri ditugu herriko hainbat puntutan, suteekin dauden arazoei aurre egiteko». Hauek nola erabili jakiteko irakatsi egingo zaie leaburuar guztiei.



Ekainerako bukatu nahi dituzte errepideko obrak. I. TERRADILLOS



Herriko 5 gunetan jarri dituzte mangeradun armairuak. I. TERRADILLOS

Argindarrarekin izan diren arazoak ere konpondu dituzte jarri berri duten transformagailuarekin.

Txaraman, berriz, lurpeko zaborrontziak jarriko dira aurki. Berrikuntzetan laguntzeko zazpi langabetu dituzte herrian eta hauen lana ere azpimarratzea da alkatearen esanetan.

Leaburu-Txaraman ekintza asko antolatuta dituzte bi urte hauetan. Horien artean emakumeen eguneko afaria azpi-

marratu nahi izan du alkateak; bertan bildutako dirua Saharako Guelta herria laguntzeko bideratu zuten. Anaikidetuta dago Leaburu Guelta herriarekin eta sahararrek eskerrak emateko leaburuarrek luzatutako laguntzari erantzun emanenez, opariak bidali zituzten hauentzat.

Herritarren laguntzarekin izan direla posible berrikuntza hauek eta eskerrak eman nahi dizkie alkateak leaburuarrei.



Drogak hizpide Aralarren

ALEGIA ▶ Drogak gazteengan duten eragina, hauek drogak lortzeko dituzten erraztasunak eta umeak drogen gaiaren aurrean nola hezitu. Hauek izan zituzten hizpide, besteak beste atzo arratsaldean Aralar institutuan bildu ziren gurasoak. Askagintzak antolatuta, bereziki DBH 2. mailako gurasoei zuzenduta solasaldia egin baitzuten seme-alaben heziketan, hein batean, laguntzea helburu izan zutelarik. NOELIA LATABURU

OREXA ▶ HIRIGINTZA

Bi familientzako sei etxe eraikiko dituzte herrian

Obrek 18 hilabete inguru iraungo dute; lau etxe geratzen dira oraindik erosteke



Bi familientzako etxeak eraikitze lanetan ari dira. I. TERRADILLOS

N. LATABURU

Orain hiru aste hasi ziren Orea bi familientzako sei etxe eraikitze lanetan. Guztira hamabi familientzako bizilekua izanik, eta hauetatik zortzi dagoeneko herritarrei egokitu zaizkienez, lau etxe geratzen dira aukeran.

Aritz Luloaga alkatearen esanetan, etxeen eraikuntza lanek 18 hilabete inguru iraungo dute. Lursail hauek Eusko Jaurlaritzaren esku

zeuden bertan Babes Ofizialeko Etxeak eraiki zitezten. Baina, urteak aurrera joan ahala etxe hauek ez dira eraiki eta lur hauek Oreako Udalaren izatera pasa ziren berriro. Orduan erabaki zuen Udalak, hain zuzen ere, bertan orain eraikitzen hasi berri diren bi familientzako etxeak altxatzea. Era berean, Oreako biztanleek baldintza malguagoak izan dituzte etxe hauek eskuratzeko orduan, izan ere, gutxiago ordainduko baitute.

Tolosako Udala
IRAGARKIA
(AKATS ZUZENKETA)
ENKANTEA
N-1 ERREPIDEAN, BIDEBIETA
AUZOAREN PAREAN, SOINU-
KONTRAKO PANTAILA JARTZEKO
PROIEKTUO OBREN KONTRATAZIOA
Aurtengo apirilaren 26an argitaratutako iragarki ofizialean, 8. puntuan (Eskaintzak aurkezteko toki eta epea), data hau agertzen zen: 2005/05/24; eta, berez, hauxe jarri behar zuen: 2005/05/18.
Tolosa, 2005eko apirilaren 26a
ALKATEA

Tolosako Udala
IRAGARKIA
Tolosako Udala Batzarrak 2005eko martxoaren 22an, harturiko erabakiaren bidez, hasierako onespina eman zaio publikorari terrazak jartzea arautzen duen ordenantzari. Bide batez, onarturiko ordenantza hogeieta hamar egun jendaurrean jarrita edukitzea erabaki zuen, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eman eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.
Epe horren barruan erreklamaziorik edo oharpenik aurkeztu gabe bukatzen bada, Ordenantza behin betiko onartutako joko da, beste erabakiren bat hartu beharrik gabe.
Tolosa, 2005eko apirilaren 25a
ALKATEA

GAZTELUKO UDALA
IRAGARKIA
Gazteluko Udalak, Gazteluko kontzejuan ostalua (taberna jatetxea) ustiatzeko prest egon daitezkeen pertsonen zerrenda bat osatu nahi du, gogoeta egin eta ustiapen modalitatea zehazteko. Interesatuak maiatzaren bosterako Udalean izena eman beharko dute.
Gaztelun, 2005eko apirilak 21
ALKATEA

BALIARRAIN ▶

Txekor jatearen txartela erosteko azken eguna

Gaur da igandean egingo den txekor jatera joateko txartelak erosteko azken eguna. Hauek eskuragarri daude 20 euroren truke tabernan. Bazkaria 14:00etan izango da frontoian eta meruan txorizo egosia, txekorra entsaladarekin, bizkotxo eta kafea sartuko dira.

ALTZO ▶

Osteoporosiari buruzko hitzaldia gaur Ertotxen

Osteoporosiari buruzko hitzaldia antolatu du Kutzako gizarte ekintzak gaur 17:00-etan Ertotxen. Herritar guztiak gonbidatu dituzte hitzaldia, gaitz honi buruz gehiago jakin ahal izateko eta bereziki, hirugarren adinekoak.

GAZTELU ▶

Kirol eta festa taldeak osatzeko deialdia

Bihar 20:00etan udaletxean kirol taldea eta festak antolatzeko taldea osatzeko bilera egingo da.

IBARRA ▶

Espainiako Jubenilen Kopan ariko da Lauburu

Bihar hasi eta maiatzaren 2a bitarte Cadizen (Espainia) jotuko da Espainiako Jubenilen Kopa. 13 taldek hartuko dute parte eta horien artean, Ibarra Lauburu. Txapelketaren zozketak egin ostean, ibartarrak zuzenean final laudernetara pasa dira, Interviu Boomerang taldearen aurka hasiko direlarik.

VILLABONA ▶

'Nork agintzen du etxean' hitzaldia bihar Gurean

Bihar 18:00etan Gureako erakusketa aretoan *Nork agintzen du etxean* hitzaldia antolatu du Ernio bideako guraso elkarteak, Joxe Amia-
ma psikopedagogoarekin.

LEITZA ▶ KULTURA



Aurkeztutako ipuinen irakurketa egin zen, saridunaren berri eman baino lehen. JAIONE ASTIBIA

Judith Mariezkurrena lehiaketako irabaztun

'Kostaldeko agurea' ipuinarekin, I. Ipuin Lehiaketako saria eskuratu du; aurkeztutako lanen bilduma eginen dute

JAIONE ASTIBIA

Lehenengo ostiralean eman zuten jakitera Kultur Taldeak antolatu zuen I. Ipuin Lehiaketako irabazlea: Judith Mariezkurrena gazteak eskuratu zuen saria, *Kostaldeko agurea* ipuinarekin.

Liburutegian egin zuten sari-banaketan irabazle zela jakitean, «oso gustura nago», zioen Judith Mariezkurrena berak: «Ez nuen inondik ere, horrelakorik espero, beste ipuinak ere oso atseginak eta politak dira eta. Ezusteko galanta izan dut». Horrelako «sariketetan parte

hartzeko irrikia biztuarazi», zitzaiola gaineratu zuen, hau zuelarik aurkeztu zen lehen aldian eta «berriz ere, parte hartuko dut», adieraziz.

«Irakurri ere, oso ongi irakurri dituzte, eta horrek ere, bere garrantzia badu», erantsi zuen idazle berriak. Izan ere, bertan, lehiaketara aurkeztu ziren ipuin guztiak irakurri zituzten, ipuin kontaketa ikastaroko hainbat ikaslek. Eta, horien egileen izen-abizenak ondoren jakin zituzten: irabazlearekin batera, Ainhoa Unanuek *Kiosko hutsa*, Unai Elizasuk *Belaxe altxako naun!*, Mikel Illarregik

Ur ttantaren egunerokoa historian zehar eta Lorea Arantzetak *Pusketatxoak* ipuinak aurkeztu zituzten.

Han bertan jakitera eman zuten, eta ipuin egileen oneritzia jasota, aurkeztutako lanak «txukun-txukun bildu, elkartu, eta itxura eman», liburuxka batetan jasoko dituzte, «ipuin bilduma modura koadernatuta», Maimur liburudendak egindako proposamenaz baliatuta. Liburuxka hau, gero, liburutegian bertan utziko dute, irakurleek han bertan, nahiz mailegutan hartuta, irakurtzeko aukera izan dezaten.

LEITZA ▶ KIROLA

Binakako Urrezko Harri-jasotzaileen Lehiaketan ariko da Mikel Saralegi

Leitzarrak bihar du kanporaketako saioa, Zelailuze bikote lagun duela

J. ASTIBIA

Bihar Lazkaon hastekoa den Binakako Urrezko Harri-jasotzaileen Lehiaketan parte hartuko du Mikel Saralegi leitzarrak ere, Zelailuze lagun duela, besteak beste. 18:30etik aurrera, Ostolaza-Izeta IVa bikoaren

aurka ari beharko dute. Hauek gain, beste 5 bikote ere lehiatuko dira, beste hainbat saiotan. Hiru harrirekin egin beharko dute lan, honako honela: bikoiteko kide bat 200 kiloko erretangularrarekin ariko da eta bestea, 100 kiloko zilindro zaharrarekin, irabazitako

saioko 2 puntu eskuratuz; ondoren, 100 kiloko bolarekin, txanda librean, irabazleek 3 puntu lortuz. 2 minutuko saioak izanen dira guztiak.

Parte-hartzaileek «oso intresgarri eta erakargarritzat» jo zuten sariketa hau, harri-jasotzea suspertze bidean jartzeko.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona. Anbulat.: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaeran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttpa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Morant, R. Zabalarreta 1

(Tolosa). 943 673 849

Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko
hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

